



EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA, ETORKIZUNA ELKARREKIN LANTZEN Iparraldeko ahotsa eta azpimarra

Lan-saioan bildutako edukiak

2022ko urriaren 15a, Seaskako egoitza (Kanbo)



elhuyar
ezagutuz aldatzea

Dinamikaren koordinazioa eta edukiaren ustiaketa

AURKIBUIDEA

1. SARRERA ETA KOKAPENA	2
2. EGITARAUA	2
3. ONDORIO NAGUSIAK	3
3.1 Gure herriaren iraunkortasuna eta hezkuntza	3
3.1.1 Zein da Euskal Herriko Hezkuntza-Sistemak jorratu beharreko norabidea? Zer nolako gizartea eta herritarrak nahi ditugu hezi?	3
3.1.2 Nola bide eman euskarari eta euskal kulturari? Nola eman bide inklusioari, ekitateari eta kulturartekotasunari?	6
3.2 Eraldaketarako gobernantza eta antolamendua: ezagutza komunitarioa, mugaz-gaindiko lankidetzeta eta kultura demokratikoa	9
3.1.3 Gobernantza komunitarioa	9
3.1.4 Mugaz-gaindiko lankidetzeta.....	11

1. SARRERA ETA KOKAPENA

Etorkizuneko Euskal Hezkuntza-Sistemaren inguruko herri-hausnarketa abian du Eusko Ikaskuntzak. Eta asmo honekin Euskal Herriko Hezkuntza-Sistemaren Liburu Zuria osatzea bilatzen du.

Euskal Herriko jendartearen erronka nagusiak hausnarketa ardatz hartuta, lurralde desberdinetan konpartitzen diren hezkuntza lehentasunak modu partekatuan identifikatuko dira. Ondoren, etorkizuneko eszenatokiak definituko dira horiei erantzuteko beharko lituzketen proposamenen inguruko adostasunak landuz.

Eta honi bide emateko, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean foro parte hartzaileak antolatzea da helburua, 2021eko irailean burututako Ehun Zubigile foroari jarraipena emanez.

Testuinguru honetan ospatu da Euskal Hezkuntza Sistema, etorkizuna lantzen: Iparraldeko ahotsa eta azpimarra foroa.

Iparraldeko eremu ezberdinetako pertsona gako eta anitzak deituak izan dira Euskal Hezkuntza Sistemaz hausnartzeko eta euren arteko konfiantza testuingurua eraikitzeko.

Foroaren helburu nagusia, hortaz, Euskal Herriko Hezkuntza-Sistemaren etorkizuneko agertoki desiragarriak eta lehentasunak elkarrekin identifikatzea izan da. Eta horretarako, beharko den marko partekatu baterako oinarriak finkatzea bilatu da, tartean, zer norabide eman behar zaion Euskal Hezkuntza-Sistemari? galderari erantzunez.

2. EGITARUA

9:15 Harrera eta inskripzioa 9:30 Irekiera instituzionala

Eguzki Urteaga eta Sebastian Castet

9:45 Proiektuaren kokapena eta saioaren aurkezpena.

Beatriz Akizu Aizpiriren sarrera ea kokapena

10:00 Dinamika parte hartzailea I

Gure herriaren iraunkortasuna eta hezkuntza

Ardatzaren kokapena: Maialen Idoate

Banakako eta taldekako gogoeta, taldekako osatzea eta landutakoak partekatzea 11:30
Atsedena

12:00 Dinamika parte hartzailea II

Eraldaketarako gobernantza eta antolamendua: ezagutza komunitarioa, mugaz- gaindiko lankidetzeta eta kultura demokratikoa

Ardatzaren kokapena: Hur Gorostiaga Binakako eta taldekako gogoeta

13:30 Itxiera eta hurrengo pausuak Beatriz Akizuren eskertzea

3. ONDORIO NAGUSIAK

Iparraldeko ahotsa eta azpimarra foroan, dinamika parte hartzaile bakoitzaren baitan, jasotako banakako zein taldekako ekarpenetatik hurrengo ondorioak atera dira:

3.1 Gure herriaren iraunkortasuna eta hezkuntza

Etorkizuneko Euskal Herriko Hezkuntza Sistemak garatu behar dituen baloreen eta helburu kolektiboen inguruko hausnarketa egin da eta hurrengoak izan dira landutako bi aspektuak eta ateratako ondorioak.

3.1.1 Zein da Euskal Herriko Hezkuntza-Sistemak jorratu beharreko norabidea? Zer nolako gizartea eta herritarrak nahi ditugu hezi?

Lehendabizi, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemak jorratu beharreko norabidea zehazten hasi aurretik, Euskal Herriko hezkuntza-sistemaz hitz egiten denean, bakoitzak zer eta nola irudikatzen duen zehaztea komeni da.

- Euskal Herrikoa adieraztean EAEko, Iparraldeko eta Nafarroako hezkuntza-komunitate osoari egiten diogu erreferentzia? Hau da, euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz irakasten duten hezkuntza-zentro guztiak barne biltzen dira? Edo hizkuntzari erreparatu behar zaio eta euskaraz irakasten duten hezkuntza-zentroak soilik hartzen dira aintzat?
- Eta hezkuntza-sistema osoaz hitz egitean hezkuntza-maila guztiak barne biltzen dira? Haurreskoetatik hasi, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Kolegioa, Batxilergoa, Lizeoa, Lanbide Heziketa, Unibertsitatea eta Helduen Hezkuntzaraino?
- Era berean, hezkuntza-sistema publiko, kontzertatu eta pribatuaz ari gara?

Oro har, Euskal Herriko Hezkuntza-Sistema bakarrak hitz egiten da, zehazki, Euskal Herriko errealitate hirukoitz eta anitzetik singularrean deklinatuko den sistema bakarrera jausi eginez.

Honek inplizituki eraldaketa sakonak dakartza hezkuntza-sistemaren balioetan, helburuetan, edukietan, egiteko moduetan, gobernantza-ereduan...

Testuinguru honetan, zein da Euskal Herriko hezkuntza-sistemaren egitekoa?

Hainbat partaideren iritziz, gaur egungo hezkuntza-sistemak ikasleak lan mundurako prestatzea du egiteko nagusi eta hala dago jasoa curriculumean ere. Ikasleen emantzipazio ekonomikoa bilatzen da.

Horregatik, eta gaur egungo egoera irauliz, etorkizuneko Euskal Herriko hezkuntza-sistemak kapital ekonomikoaren gainetik kapital kulturala lehenetsi beharko luke.

Norabide honetan, partaideek aho batez adierazi dute Euskal Herriko hezkuntza-sistemaren erdigunean ikasleak egon behar duela.

Eta ondorioz, besteak beste, honelako herritarrak hezi beharko lituzkeela:

- Euskaldunak, euskal hiztunak, euskaraz bizi nahi duten herritarrak, euskaradunak, eleanitzak...

- Euskal Herriko herritarrak, Euskal Herritarrak, Euskal Herria bere osotasunean ezagutzen dutenak, euskal kulturaz eta Euskal Herriko historiaz jabetuak...
- Parte hartzaileak, Euskal Herriko dinamiketan partaide direnak, eraldatzaileak...
- Ahaldunduak, burujabeak, hegemonietatik ihes egingo duten ikasle emantzipatuak...
- Feministak, balio feministak praktikan jartzen dakitenak...
- Natura errespetatu eta zainduko dutenak, ekologistak...
- Arlo teknologiko eta digitalean prestatuak...
- Konprometituak, aktiboak, inplikatuak, militanteak, “politizatuak”...
- Kritikoak, autokritikoak, etorkizuneko aldaketei erantzuteko prestatuak...
- Sortzaileak, eraikitzaileak, Euskal Herria eraiki nahi duten herritarrak...
- Lokalki errotuak, komunitatearekin konprometituak, mundu globalizatuan bere tokia dutenak...
- Nortasun irekikoak, beste kulturei irekiak, tokian tokikoa kontuan hartuta inguruari begiratuko diotenak, aniztasuna eta ezberdintasuna onartzen duten herritarrak...
- Askeak...

Nolako herritarrak nahi ditugun adierazteak bere baitan dakar Euskal Herriko hezkuntza-sistemaren oinarri izango diren balioak definitu beharra. Egiteko honetan, partaideen ustez, iritzi desberdinak eta, kasu batzuetan, kontrajarriak azaleratuko dira. Hala ere, balio komunei eta helburu partekatuei eutsi beharko zaie, ikasleen ongizatea eta heziketa direlarik xede.

Heziketari helduaz, azken hamarkadetan heziketarako esparruak hurrengoak izan dira: familia, lagunartea, erlijioa, eskola, komunikabideak... Esparru horietako asko zeharo eraldatu edo ahuldu dira azken urteetan, Interneten agerpenak eraginda.

Egoera honen aurrean, hainbat kideren iritiz egun heziketarako eragin eremu nagusia eskola da. Alor honetan, eskolak heziketarako bitarteko-tresna gisa edota, emantzipaziorako arnagune gisa irudikatu dira.

Bestalde, heziketaren ardura partekatu izan behar dela adierazi da. Eskolak ezin du bakarrik, hezkuntza-komunitate osoaren beharra dauka. Ildo honetan, herri hezitzaileen adibidea ekarri da gogora, lankidetzatik eta elkarlanetik herriaren onurarako lan eginez.

Idea honekin bat dator etorkizuneko Euskal Herriko hezkuntza-sistemak aukera berdintasuna bermatu behar duela. Jardunaldian parte hartu duten lagunek argi dute Euskal Herri eremuan bizi diren guztiei euskarazko irakaskuntza eta ikasketa ibilbide osoa segurtatuko dien hezkuntza- sistema baten aldeko apustua egin behar dela. Halaber, hainbat partaidek apustu honi arretaz heldu beharra azpimarratu dute, segregazioaren gaia mahaigaineratuz.

Eta aukera berdintasunarekin bat, menderakuntza-sistema guztiekin hautsi beharko litzakeela aipatu da.

Menderakuntza-sistema anitzak diren arren, partaideek Euskal Herriak bizi duen egoera administratibo eta politikoari heldu diote sendoen. Errealitatea ukatu ezin daitekeen arren, mugak gainditu beharra aldarrikatu da, Euskal Herriko hezkuntza-sistema bakar baten ideia sendotuz. Hala ere, eta hainbaten iritziz, subordinazio egoera gainditzen ez den bitartean, Euskal Herriko hezkuntza-sistema propioa eraikitzea zaila izango da; hezkuntza arloko eskumenak eta ondorioz erabaki guneak, eragite eremuetatik kanpo baitaude.

Egoera administratibo-politikotik harago, gaur egun Euskal Herriarekiko herritarren begirada zatitua dela adierazi da: hegoaldea-iparraldea etengabe bereizten dira; ezberdin begiratzen diogu elkarri, maiz begirada paternalista batetatik... eta beraz, hau ere bada landu beharreko beste gai bat.

Egoerak egoera eta zailtasuna zailtasun, Euskal Herriko hezkuntza-sistemak herritarren heziketa erdigunean jarri eta eraldaketarako bokazioa izango duen heinean, besteak beste, eta epe motzean, hurrengo erronkei heldu beharko dio:

- Euskara. Ikasketa ibilbide osoa euskaraz egiteko aukera bermatzea. Eta harago joanez, ikasleen euskararen ezagutza- zein erabilera-mailan eragitea.
- Euskal Herria eta euskal curriculum. Euskal Herria bere osotasunean lantzea eta euskal kulturari toki egitea.
- Ingurumena. Bertakotasunetik eta lurrari loturik, krisi klimatikoaren aurrean erantzunkide izatea.
- Teknologia eta digitalizazioa. Aukera eta arrisku gisa ikusten diren arren, hauen erabilera eta kudeaketa egokirako ikasleen ikuspegi kritikoa garatzea.
- Demografia. Azken urteetako jaiotze-tasen beheranzko joeraren aurrean eszenatoki desberdinak aurreikustea.
- berdintasuna. Feminismoa eta intersiokzionalitatea ardatz lan egitea.
- Aniztasuna. Aniztasunari bere zabaltasunean heltzea.
- Inplikazioa eta parte hartzea. Ikasleen, irakasleen, gurasoen... eta oro har, herritarren parte hartzeko kultura garatzea.
- Gobernantza eredu berriak. Aginte- eta erabaki-ereduak irauli eta tokian tokikoa lehenetsiz, hezkuntza-komunitateak ahaldundu eta eredu komunitario eta partekatuak esperimintatzea.
- Saretzea. Hezkuntza-komunitateen arteko elkar ezagutza eta elkarlana sustatzea.
- Mugaz-gaindiko lankidetzak. Euskal Herriko hiru lurraldeen arteko koordinazioa eta lankidetzak- esparruak identifikatu eta praktikan jartzea.
- Ahalbideak. Hau guztia aurrera eramateko baliabideak lortzea eta kudeatzea. Eta noski, denbora eskaintzea.
- ...

Amaitzeko, eta Etorkizuneko Euskal Herriko hezkuntza-sistema norabide horretan jartzeko, ezinbesteko elementutzat jo da ausardia.

3.1.2 Nola bide eman euskarari eta euskal kulturari? Nola eman bide inklusioari, ekitateari eta kulturartekotasunari?

Euskal Herriko hezkuntza-sistema zein balioaren gainean eraiki beharko litzatekeen bada hausnarketa gai. Balio horien artean zentralitatea eduki beharko lukete: euskarak eta euskal kulturak; eta inklusioak, ekitateak eta kulturartekotasunak.

Bi aspektu hauei bide nola eman eztabaidatu aurretik, Iparraldeko ahotsa eta azpimarra foroan parte hartu duten lagunek gaur egungo hezkuntza-sistemaren errealitatearen diagnostiko bat beharrezko ikusi dute, etorkizunera begirako erronkak identifikatu, indarrak neurtu, hartu beharreko neurriak zehaztu eta lehentasunak ezartzeko. Izan ere, hezkuntza-sistema berri eta bakarra sortzeak lan ideologiko mardula eskatzen baitu.

Testuinguru honetan, eta Eusko Ikaskuntzatik luzatutako galderei helduz, euskarari eta euskal kulturari bide nola eman izan da partaideen partetik hausnarketa gehien eragin duen gaia. Inklusioa, ekitatea eta kulturartekotasunari dagokionean berriz, hainbat kontu aipatu diren arren gaian ez da gehiegi sakondu.

Euskara eta euskal kultura

Partaideen iritziz, hizkuntza eta kultura banaezinak dira, bataren alde egindako lanak inpaktu zuzena baitu bestearengan eta alderantziz. Are gehiago, eta kasu honetan, euskara ez baita soilik komunikaziorako tresna gisa identifikatzen, mundu ikuskera bat, nortasun bat eta identitate bat badelako ere.

Hau horrela, eta etorkizuneko Euskal Herriko hezkuntza-sisteman euskarari eta euskal kulturari bide nola eman hausnartzerako garaian hurrengo erronka eta hauei heltzeko proposamenak mahaigaineratu dira:

- Euskararen ofizialtasunaren beharra, kasu honetan Ipar Euskal Herrian. Eta honetarako, egiturazko neurriak hartzea eta erakunde publikoen esku hartzea sendotzea proposatzen dira.
 - Partaide batzuen iritziz Euskal Elkargoak egiteko handia du bide honetan. Hala ere, Euskal Herriko beste erakunde publiko batzuekin elkarlanak: Eusko Legebiltzarrarekin eta Nafarroako Parlamentuarekin kasu, eragite gaitasunean lagun dezakeela aipatu da.
 - Beste batzuk aldiz, ofizialtasunaren albo ondorioen beldur dira, adibidez: eremu sozialeko ekimenen ahultzea eta potentzialaren galera. Eta hortaz, ofizialtasuna beharrezko ikusten duten arren trantsizioa arretaz egin beharra azpimarratu dute.
 - Eta beste hainbat lagunek uste dute euskararekiko atxikimenduan egon den aldaketak edo apaltzeak ofizialtasun ezarekin zerikusia duela. Eta ofizialtasunak bere horretan atxikimendua ziurtatzen ez duen arren, ezinbesteko elementutzat jotzen da.

- Hizkuntza-politika sendo eta ausartak, zeinak euskararen ezagutza bermatu eta erabilera sustatuko duten. Ildo honetan, hainbat politiketan, euskara eta euskal kulturarentzat diskriminazio positiboa sustatzea proposatu da.
 - Hainbat partaidek derrigortasunerako pausuak ematea aipatu dute, euskararen ezagutza beharrezkoa izanik hainbat lanetarako, adibidez.
 - Aspektu honi ekarpena eginez, hizkuntza politikez gain, hizkuntza-kultura-hezkuntza hirukoari eustea, koordinatzea eta estrategia bateratuak diseinatzea esan da.
 - Eta euskal kulturaren fokua jarritz, hainbat partaidek aipatu dute kultur eragileekin honen sostengu eta sustapenerako hausnarketa partekatuta egin beharra dagoela, euren ekarpena balioan jartzeko helburuarekin.

- Euskaraz ikasteko eskubidea bermatzea, hezkuntza-sistema osoan, txikitatik hasi eta unibertsitateraino. Eta behin ikasketak amaituta, euskaraz lan egiteko aukera izatea.
 - Praktika on gisa murgiltze-eredua aipatu den arren, gaur egun hainbat hutsune nabaritzen direla nabarmendu da: alde batetik, euskara-mailaren apaltzen bat sentitzen da; eta bestetik, familia eta irakasleen kontzientzia politikoaren apaltzea ere sumatzen da. Hortaz, murgiltze-ereduari buelta bat gehiago eman behar zaiola uste da.

- Hezkuntza-sisteman Euskal Curriculumaren orokortzea. Honek ikastetxeetarako euskarazko zein Euskal Herriaren historia eta kulturaren berri jasotzen duten materiala eguneratzea eta berria sortze eskatzen du. Pausu bat harago eginez, eta euskal curriculumaren aterkipean hezkuntza-zentro desberdinen artean, hasi Seaskatik eta eskola publiko zein pribatuetaraino, lankidetzara iraukorrak garatzea.

- Ikasketa ibilbidean zehar, izan hezkuntza-formalean edo ez-formalean euskara zehar lerro izatea. Euskaraz mintzatu eta euskal kulturaren murgiltzeko espazioak sortzea.
 - Testuinguru honetan, Euskal Herriko beste lurraldeetako ikasleekin elkar ezagutzarako eta trukerako guneen garrantzia aipatu da, beste errealitate batzuk ezagutu eta euskararekiko eta euskal kulturarekiko bizipen berriak ekarriko baititu.

- Euskal identitate digitala lantzea, euskararen eta euskal kulturaren presentzia bermatzeko. Honek, alde batetik teknologia eta digitalizazioarekiko ikuskera aldatzea dakar, mehatxu baino aukera gisa kontsideratzea. Eta bestetik eta aukera hori baliatuz, euskarazko zein euskal kulturaren oinarritutako produktu digitalen eskaintza ekoiztea eta areagotzea eskatzen du.

- Euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua areagotzea. Partaideek pentsatzen dute duela hamarkada batzuk euskal gizarteak zuen kontzientzia politiko askoz sendoagoa zela eta gaur egungo gizarte globalizatuan kontzientzia eta atxikimendu hori apaldu egin direla. Horregatik, txikitik eta tokikotasunetik euskararen eta euskal kulturaren prestigioa landu beharra ikusten da, horretarako hainbat proposamen eginez:

- Euskara eta euskal kultura biziartzea. Hizkuntza eta kulturarekin kontaktua bultzatzea, harremanean egotea eta bizipenak eta esperientziak izatea. Azken finean, plazerra eta gozamanerakin identifikatzea.
- Hain justu, euskara eta euskaldun izatea arlo emozionaletik lantzea. Norbanakoaren ahalduntzean eta kolektibitatearen eraikuntzan euskarak eta euskal kulturak duten pisuaz hausnartzea.
- Euskara eta euskal kultura erakargarri egiteko erreferenteak lantzea. Iragana ahaztu gabe, eta belaunaldi desberdinek euskararekiko eta euskal kulturarekiko duten atxikimendu desberdina ulertuz, gaur egungo euskal harrobia zaintzea eta ezagutzera ematea.

Azkenik eta esaldi bakarrean laburtze aldera, euskara eta euskal kultura iraganaren lekuko izateaz gain, gaur eguna bizitzeko katebegi dira eta etorkizunerako eredu.

Inklusioa, ekitatea eta kulturartekotasuna

Hasteko, eta inklusioa eskubide gisa ulertuta, hainbat partaideren iritziz Euskal Herriko hezkuntza-sistemak ikasle ororen ongizate eta garapenerako baldintzak ezartzeko ardura behar du izan.

Eta baldintza horien ezarpenean, behin eta berriz, euskara inklusiorako tresna gisa kontsideratu beharra aipatu da.

Gai honen bueltan, baina, eta eleaniztasunari eta kulturazintasunari toki egitean, hainbat elementu azaleratu dira, hala nola:

- Egun eta Ipar Euskal Herriko errealitateari begiratuta, etorri berrien profila hurrengo da: pertsona helduak, frantses jatorrikoak... Hortaz eta kasu honetan, erronka ez litzateke inklusioa, euskalduntzea baizik eta honek fokua helduen euskalduntzean jartzea eskatzen du.
- Beste hizkuntza eta kultura batetik datozen ikasleen kasuan, berriz, harrera eta inklusiorako bidea euskaraz egin beharra azpimarratu da, euren hizkuntz eta kulturari toki eginez.
 - Baina zer gertatzen da euren jatorrizko hizkuntza eta kultura hegemonikoa denean? Partaideen iritziz ezin da ahaztu euskara hizkuntza gutxitua dela eta Ipar Euskal Herrian bizi duen egoera zaurgarria dela.
- Eta modu orokorrean, aniztasunari eta desberdintasunari begirada are eta gehiago zabaldu beharra aipatu dira; eta horretarako, elkar ezagutzarako espazio eta guneak zabaltzearen premia.

Dena dela, gai sakondu beharra ikusi da. Izan ere, eta Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko partaideen artean segregazioaren gaiak eta hau ulertu eta bizitzeko moduen artean aldea ikusi da:

- Ipar Euskal herriko hainbat partaidek adierazi dute segregatuak euskaldunak direla, hain justu, euskaraz ikasi eta bizitzeko eskubidea urratzen zaielako.

- Bestalde, hainbat partaideren iritziz, segregatuen profila beste bat. Bazterketa egoera ikasketak doakoak edo ordainpekoak izateak eragiten du, segregatuak egoera zaugarrian dauden ikasle eta familiak izanik.

Horregatik, hainbat partaidek mahaigaineratu dute Ipar Euskal Herriko hezkuntza-sisteman ikasleen banaketa nolako den jasotzeko gaur egungo hezkuntza-komunitatearen diagnostiko bat egitea beharrezkoa litzatekeela; eta tartean, kontuan hartu beharreko aldagaiak sexua, jatorria, egoera sozio-ekonomikoa, hizkuntza... liratekeela.

3.2 Eraldaketarako gobernantza eta antolamendua: ezagutza komunitarioa, mugaz-gaindiko lankidetzak eta kultura demokratikoa

Etorkizuneko Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren eraldaketarako gobernantzaz eta mugaz-gaindiko lankidetzaz hausnartu dugu eta ondorengoak dira jasotako ekarpenak.

3.1.3 Gobernantza komunitarioa

Iparraldeko ahotsa eta azpimarra foroan parte hartu duten lagunen gehiengoa ados dago Euskal Herriko hezkuntza-sistemaren eraldaketako egungo gobernantza-eredua deseraiki beharraz eta komunitatea erdigunean jarriko duen gobernantza-eredu berriak eraiki behar direla.

Eta horretarako hezkuntza-sistematik harago, hainbat dira kontuan hartu beharreko elementuak:

- Euskal Herrian herrigintzan eta auzolanean den esperientzia baliatu behar da.
- Bai Hego Euskal Herrian bai Ipar Euskal Herrian izan diren herrigintzako ekimenei begiratu behar zaie. Esperientziatik ikasteko ispilu izan beharra.
 - Besteak beste, Seaska izan daiteke gobernantza komunitarioaren paradigma.
- Ipar Euskal Herriaren kasuan, eta gobernantza-ereduari dagokionez, zentralismotik autonomiarako saltoa egin beharra nabarmendu da.
 - Lehendabizi, deszentralizazioak zein onura ekarriko lukeen ikusarazi eta adierazi beharra agertu da; denok irabazle izateko ideiarekin, berdin gatazkatik iraganez.
 - Gobernantza komunitarioa garatzeko tresna gisa irudikatzen da Europar Batasunaren oinarri den subsidiaritate printzipioan. Horregatik, burujabetzarako eta eskumen berriak eskuratzeko jorratu beharreko bidetzat hitz egin da.
 - Eskubide Kulturalen metodologiak ahalbidetutako deszentralizazio eredu baten aldeko jarrera baliatu beharra gaineratu da, zeinak erakundeetara heltzeko aukera zabaltzen duen.
 - Honela, euskal erakunde publiko baten beharra azpimarratu da.

- Euskal Autonomia Erkidegoan aldiz, tokian tokiko hezkuntza-komunitateak indartu beharra aipatu da:
 - Zuzendaritzak, irakasleak, guraso elkarreak, ikasleak... ahaldunduz eta borondatezko parte hartzeari arreta jarritz.
 - Eta herri ikuspegi batetik herri onurarako estrategiak eta dinamikak sustatuz; hala nola, hezkuntza-batzorde eraginkorrek martxan jarritz.

Era berean, partaideek argi adierazi dute parte hartze kulturaren sustapen irmoa egin beharra: hasi, entzute aktibo batetik eta enpatia ariketa batetik, eta ekintza komunitarioa praktikara eramateraino. Honek ziurtatuko baitu parte hartzea eta konpromisoa.

Testuinguru honetan, eta gobernantza komunitarioak aginte partekatua lehenesten duen unetik, partaideen iritziz ezinbestekoa da lau urteko legegintzaldiekiko menpekotasunarekin haustea eta aurrez jaso den moduan, komunitateko protagonistak ahalduntzea eta elkarrekin lanean jartzea, erabakiguneetan erakunde, herritar, eragile eta adituen presentzia bermatuz.

Hortaz:

- Herrigintzan ezinbesteko aktore dira: herriko etxeak, eskolak, aisialdi-, kirol- eta kultur- eragileak, ...
- Eskola komunitatearen eta herriko etxearen arteko harremanak zuzena eta etengabea behar du izan.
- Herri ikuspegi lehenetsi behar da, bakoitzak bere esparrutik helburu partekatuak helburu.
- ...

Bide horretan, sareak eta indarrak batzea izan dira gehien errepikatutako hitzak. Sare-lana, hurrengoetarako:

- Ipar Euskal Herrian instituzionalizazioaren sendotzeak ekar ditzakeen albo ondorioei aurre egiteko, tartean eragileekin eta gizarte zibilarekin lankidetzak ahultzeko arriskua.
- Ipar Euskal Herrian bertan, hezkuntza-komunitatea indartzeko. Sare publikoaren, pribatuaren eta Seaskaren arteko koordinazioa eta elkarlana sustatzeko.
 - Ekimen partekatuak beharrezkoak dira; matematikako irakasleen kasua adibide.
- Tokian tokiko errealitateak abiatuz, helburu partekatuak landu eta behar komunei erantzuteko.
 - Adibide gisa, herri hezitzaileen proiektua aipatu da behin baino gehiagotan. Herriko etxeak, hezkuntza eragile formal eta ez-formalak, herri eragileak... hartzen dute parte egitasmoan, herri ikuspegi batetik herriko behar eta erronkei erantzutea helburu.
 - Antzeko egitasmoa da ere Hurren Hirien sarea.
- Eskolak indartzeko: eskola-zuzendaritzak, irakasleak, gurasoak eta ikasleak elkarlanean jarduteko.

- Euskararen eremuan politika bateratuak lantzeko, hizkuntza-politiken ondorioak hezkuntza ekosistema osoan eragiten dutela kontuan hartuta
 - Gaur egun ikasleen euskalduntzerako egiten diren ahaleginak izan Ikastolan edo eskolan, ez dute segidarik lanbide heziketan edo unibertsitatean.

Eta guzti honetan hezkuntza-komunitatea eredu izan beharra aipatu da. Haur, nerabe eta gazteen heziketaren arduradun nagusi den heinean, pentsatzen, idazten, sortzen... irakasteaz harago, gobernantza komunitarioa praktikatu behar baitute:

- Komunitatearen onurarako prozesuetan parte hartu behar dute.
- Talde-lanean jardun behar dute. Ardurak partekatu eta txandakatu behar dituzte.
- Erabakitze-prozesuak irudikatu eta adostu behar dituzte. Deliberatzen ikasi behar dute
- Egingakoaren jarraipena eta ebaluazioa egin behar dute. Hobekuntzarako proposamenak landu behar dituzte.

Honela, eta komunitateko partaide direla sentiarazi zaien heinean, ikasle motibatuak, inizatibadunak, enpatikoak, erantzunkideak eta konprometituak izango lirateke, bai norbanakoarekiko, baita taldearekiko ere.

3.1.4 Mugaz-gaindiko lankidetzak

Hasteko eta behin, mugaz-gaindiko adierazterakoan erreferentzia-eremua zein den zehaztu beharra dago. EAEz, Iparraldeaz eta Nafarroaz ari gara edo Euskal Herriaz gaindi?

Euskal Herri mailako lankidetzan kokatuz, hainbat partaideren iritziz bi dira gainditu beharreko aspektuak. Batetik, EAEren partetik ematen den zentralismoa eta honen ondorioz Euskal Herriarekiko eta euskal lurraldeekiko irudi eta sinesmen asko deseraiki behar dira. Eta bestetik, eredu paternalistarekin hautsi eta herrialdeen artean laguntza emateaz hitz egin beharrenean, elkarlanaz hitz egin behar da.

Gogoeta honek, Euskal Herriko gobernantza-eredu bateratu baten beharra ere azaleratu du. Hainbat kidek gobernantza-eredu propioa irudikatzen hasteko garaia dela azpimarratu dute, baita eginbide honetan Eusko Ikaskuntza gako izan daitekeela ere, irudikatze prozesuaren lidergoa bere gain hartuz.

Halaber, mugaz-gaindiko lankidetzarako hurrengo gaiei heldu beharra ezinbestekotzat ikusi da:

- Elkar ezagutza.
- Dagoeneko existitzen diren sareak elikatu eta zabaltzea.
 - Eta izan diren edo gaur egun diren mugaz gaindiko ekimenak irakaspen gisara aintzat hartzea: AEK eta Korrika, Euskal Herriko bertso-txapelketa, Euskal selekzioa, herri irratia, Ikastolen Elkarte...
- Euskal erakundeen eta gizarte antolatuen arteko lankidetzak egituratzea.
- Mugaz-gaindiko ekimenak garatzea.

- Tokian tokiko errealitateki abiatuz, eta udal mailako lankidetzak sostengu izanik, herrien arteko zubi-lana sustatzea.
- Haurrak, nerabeak eta gazteak lankidetzan eta kultura demokratikoan hezteak.

Eta hau hezkuntza eremura ere estrapolatzen da, baitezpadakotzat joz:

- Gaur egungo Euskal Herriko hezkuntza-sistema desberdinak ongi ezagutzea eta helburu partekatuak identifikatzea.
- Euskarazko eta Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartuko duen hezkuntza-eredua lehenestea.
 - Euskal Curriculumari toki egitea eta Euskal Herri osora hedatzea.
- Lege marko desberdinak aztertu eta instituzio garapenerako aukerak arakatzea.
 - Ipar Euskal Herriko NOTRE legeak adibidez, aukera desberdinak eskaintzen ditu, eskuduntza transferentzia besteak beste.
- Euskal Herriko hezkuntza-sistema eta sare desberdinen artean elkarlanerako espazioak asmatzea.
- EAE, Ipar Euskal Herria eta Nafarroaren arteko ekibalentzia sistema bat lantzea, izan ikasteko edo lanerako.
- Euskal Herriko unibertsitate ereduak birpentsatzea.
- Hezkuntza eragileek Euskal Herri osoko eremuan jarduten duten bestelako eragileekin harreman zuzena izatea, hala nola: AEK, Eusko Ikaskuntza, Ikastolen Elkarteak, Kontseilua, Udalbiltza...
 - Kirolaren alorreko eragileekin harremanak hastea edo sendotzea.

Hari honi tirakak, hainbat lankidetzak proposamen mahaigaineratu dira:

- Unibertsitate eremuan, Euskal Herri osoan EHU/UPVren presentzia bermatzen ez den bitartean, Erasmus egitasmoa Euskal Herrira ekartzea.
 - Hainbat kidek baina tentuz ibili beharra aipatu dute, kasu hauetan atzerritar gisa kontsideratzen baitituzte ikasleak eta honek iparralde-hegoalde arteko arrakala handitzea ekar lezake eta.
- Lanbide Heziketan egun dauden ereduak eustea eta beste esparruetara zabaltzea.
- Ikasleen mugikortasuna sustatzeko eta esperientziak trukatzeko Euskal Herri mailako bulego bat irekitzea.
- Irakasleen formakuntza-eskaintzan elkar ezagutzarako eta trukerako foroak garatzea.
- Orokorrean, materiala bateratu eta partekatzea.
 - Batik bat hurrengo gaiei dagokionean: euskara, Euskal Herriko historia...

Azkenik, partaideen partetik adierazi da proposamen hauen baitan arretaz landu beharko dela euskararen eta hizkuntzen kudeaketa.

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA I - AKTA**GURE HERRIAREN IRAUNKORTASUNA ETA HEZKUNTZA**

Taldean, partaide bakoitzak partekatutako erantzunak – post-itak –, eta talde txikietan papelografoan gehitutako ideia berriak.

Zein da Euskal Herriko Hezkuntza Sistemak jorratu beharreko norabidea? Zer nolako gizartea eta herritarrak nahi ditugu hezi?

**Nola bide eman euskarari eta euskal kulturari?
Nola eman bide inklusioari, ekitateari eta kulturartekotasunari?**

ALTUBE

- Euskal Herriko hezkuntza-sistemaz ari garenean, zer eta nola irudikatzen dugu Euskal Herria?
 - Hizkuntza, euskara, da erreferentzia. Edo hezkuntza-komunitatea? Kasu honetan, euskaraz, gaztelaniaz zein frantsesez irakasten duten eskolak hartu beharko genituzke aintzat.
 - Ezin dugu euskara hizkuntza gutxitua dela ahantzi.
- Euskal Herriko hezkuntza-sistema lurrari lotua izan behar du, herriari eta ekologiarri. Bertakotasunetik, munduari irekitzeko.
- Era berean, gizartean kokatua egon behar du. Gizarteko arlo guztiak izan behar dira hezkuntza-sistemako partaide.
- Testuinguru honetan, zein da hezkuntza-sistemaren egitekoa gaur egun?
 - Gaur egungo hezkuntza-sistemak ikasleak lan mundurako prestatzea du egiteko nagusi.
 - Curriculum lanari fokalizatuta dago, ikasleen emantzipazio ekonomikoa du helburu.
 - Horregatik, etorkizuneko Euskal Herriko hezkuntza-sistemak kapital kulturala lehenetsi beharko luke, kapital ekonomikoaren gainetik.
- Azken hamarkadetan heziketarako esparruak hurrengoak izan dira: familia, lagunartea, erlijioa, eskola, komunikabideak... Esparru horietako asko zeharo eraldatu edo ahuldu dira azken urteetan, Interneten agerpenak eraginda.

ATURRI

- **OROKORREAN:**
 - Emandako aurrerapausoak balioan jarri behar dira.
 - Diagnosi erreal bat beharrezkoa da, egun dugun egoera benetan zein den ezagutzeko eta hartu beharreko neurriak bertatik abiatuta hartzeko.
 - Normaltzat zer dugun definitzea ere beharrezkoa da, zeri nahi diogun lehenetsia eman. Hezkuntza sistemak transmititu behar dituen balioen artean zein den ardatza erabaki.
- **ERRONKAK**
 - Euskal identitate digitala landu, profil digitala eraiki.
 - Pantailen bitartez zabaltzen den kulturaren euskal kulturaren presentzia segurtatu.
 - Digitalizazioa: mehatxua eta, aldi berean, aukera da.
 - Euskal kulturaren produktu digitalen eskaintza areagotu behar da.
 - Itzulpen automatikoan sakondu behar da.
 - Hizkuntzaren afera:
 - Euskal herritarrek Euskal Herriko hizkuntza guztiak ikasi/ezagutzea bermatu behar da: euskara, frantsesa, gaztelania (gaskoina?).
 - Euskara zeharlerro izan behar da: eskolatik kanpoko eremuetan eragitea beharrezkoa da, eremu ez-formaletara eramatea, bizitzarekin lotzea.

- Familia-ereduak gero eta anitzagoak dira
- Lagunarteak asko lausotu dira, sare sozialak tarteko
- Komunikabideak (egunkari, irrati, telebista...) gero eta gutxiago erabiltzen dituzte hainbat adin-tartek, tartean gazteek
- Horregatik, heziketarako dugun eragin eremu nagusia ESKOLA da.
 - Eskolak heziketarako bitarteko-tresna izan behar dira.
 - Eskolak emantzipazio-arnasguneak izan behar dira.
- Heziketaren ardura partekatua izan behar da.
 - Eskolak ezin du bakarrik egin.
 - Nola borrokatu gizarte joera orokorren aurka? Hau da, individualismoaren, sexismoaren, kapitalismoaren, teknologia eta digitalizazioaren (erabilera okerraren eta menpekotasunaren) ... kontra?
 - Eskolatik kanpoko eremuak ere kontuan hartu behar ditugu:
 - Hezkuntza ez-arautua
 - Gizarte mugimenduak
- Etorkizuneko Euskal Herriko hezkuntza-sistemak aukera berdintasuna bermatu behar du.
 - Euskaraz ikasi eta hezteko aukera.
 - Menderakuntza-sistema guztiakin hautsi beharko luke.
 - Arreta jarri behar zaio ere segregazioari...
 - Segregazioa desberdin bizi dugu, hegoalde eta iparraldean.
 - Nor da segregatua?
 - Interseksionalitatea da bidea.
- Hala ere, subordinazio egoera gaintzen ez dugun bitartean, Euskal Herriko hezkuntza-sistema propioa eraikitzea zaila izango da.
 - Espainiar eta Frantziar estatuen menpeko gara eta hezkuntza eskumenak (erabaki guneak) gure eragite eremuetatik kanpo daude.
 - Ez ditugu ahaztu behar euskararen egungo egoera juridiko desberdinak.
- Egoera administratibo-politikotik harago, gaur egun herritarrok Euskal Herriarekiko begirada zatitua dugu: hegoaldea-iparraldea etengabe bereizten ditugu; ezberdin begiratzen diogu elkarri, maiz begirada paternalista – laguntza – eskaini asmoz EAEtik periferietara; ...
 - Ezezagutza handia da, elkarren arteko ezagutza sustatu behar da.
- Euskarara nola erakarri behar ditugu ikasleak? Euskararen ezagutza behartzea aukera bat izan daiteke. Derrigorrezkotasuna federazio publikoan.
- Ofizialtasunaren afera. Euskaraz bizi eta lan egiteko aukera bermatu.
 - Euskararekiko atxikimenduan aldaketa handia egon da. Zerikusi handia du ofizialtasun ezak kontzientzia piztearekin. Ofizialtasunak ez du transmisioa ziurtatzen, ez ka konponbidea, baina beharrezkoa/ezinbestekoa da.
- Prestigioa lortu behar da, bereziki lan munduan. Horretarako tresnak: hizkuntzen primak.
- Hezkuntza sistemaren helburua euskal herritarrak eraikitzea behar da izan. Hizkuntza erakargarri egiteko erreferenteak beharrezkoak dira.
- Nerabeen artean euskaraz mintzatzeko espazioak sortu: kulturari buruz edo beste gai batzuei buruz. AEK edo udalekuekin, adibidez.
- Euskal Elkargoak egiteko handia du euskararen ofizialtasunari dagokionez. Hala ere, horrek ez du ekarri behar eremu sozialeko ekimenen ahultzea, potentziala galtzea.
- Kultura:
 - Euskal Herriko erreferentziak sortzea eta biziartzea beharrezkoa da: kulturalak, ikasgaien artekoak.
 - Modu berean, euskal kulturaren iragana ezagutzea ere beharrezkoa da.
 - Euskal Herri osoko kultura ezagutzea beharrezkoa da, Euskal Herriatik eta euskaraz sortzen ari dena ezagutzea.
 - Euskal umorea sortu behar da, euskal formulak sortzea.
 - Foro bat abian jartzea lizeoan diren nerabeentzat euskaraz (kulturari buruz edo beste gai batzuen inguruan hausnartzeko).
- Harremanak sustatu:
 - Errealitatea eta lurralde ezberdinetako ikasleen arteko trukeak: lurralde ezberdinetako ikastetxeetako ikasleak gurutzatu.
 - Elkartruke kulturalak, elkar-ezagutza sustatu.
 - Harremantzeko “plazak” eskaini gazteei. Lurraldetasuna zaindu.
- Esparru instituzionalen arteko loturak erraztu: Elkargoa-Legebiltzarra-Nafarroako Parlamentua.
- Kulturartekotasuna:
 - Balio progresistekin lotzea beharrezkoa da.

<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizuneko Euskal Herriko hezkuntza-sistemak honelako herritarrak hezi behar ditu: <ul style="list-style-type: none"> ○ Euskal hiztunak ○ Euskaraz bizi nahi duten herritarrak ○ Herritar euskaldunak, parte hartzaileak, beste kulturei irekiak, sortzaileak... ○ Euskal Herritarrak: euskaldunak, balio feministatik praktikan jartzen dakitenak, kritikoak, ahaldunduak... ○ Herritar kritikoak, parte hartzaileak, euskaradunak ○ Kritikoak eta eraikitzaileak ○ Nortasun irekiko euskal herritarrak, tokian tokiko kontuan hartuta inguruari begiratuko diotenak ○ Aniztasuna, ezberdintasuna onartzen duten herritarrak ○ Euskal Herriko herritarrak: Euskal Herria bere osotasunean ezagutzen dutenak, Euskal Herriko dinamiken partaide direnak ○ Euskal Herria eraiki nahi duten herritarrak ○ Ikasle emantzipatuak, hegemonietatik ihesi • Testuinguru honetan, eta herritarren heziketa erdigunean jarriz, Euskal Herriko hezkuntza-sistemak hurrengo beste erronka hauek ere gainditu beharko ditu: <ul style="list-style-type: none"> ○ Herritarren inplikazioa eta parte hartzearen erronka. ○ Ardura partekatu eta gobernantza komunitario baterako erronka. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aginte- eta erabaki-ereduak irauli behar dira. ○ Mugaz-gaindiko ezagutza eta lankidetzak. ○ Ahalbideen erronka. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Akaso, ahalbiderik gabe posible litzateke? ▪ Denbora da, beharrezko ahalbidea. • Ausardia behar da honetarako eta eskemak hautsi. 	<ul style="list-style-type: none"> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Oinarri komun batzuk behar ditu: balio, kultura, hizkuntza... • OZTOPOAK <ul style="list-style-type: none"> ○ Kulturartekotasunaren afera: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bideragarritasuna aniztasuna integratzea bada, nola lotu Ipar Euskal Herrian aniztasun kulturalak (etorkinak) euskarari eta euskal kulturari beren jatorrizko ondarearekin (hizkuntzak eta kultura)? ▪ Segregazioaren ikuskera ezberdinak ipar/hergo: Iparraldean subalternitate bizi da. ○ Hizkuntza eta kulturaren afera: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Loturak falta dira, isolamendua. ▪ Eskaintza ez-interesgarria, ez dator bat eskaintza interesekin. ▪ Kultura globalizatu batean itoak gara (bereziki gazteak): Kultura (filmak, musika...), informazioa, jolasak... ▪ Euskarak prestigio eta erakargarritasun eskasa du. ○ Erabakigunea Parisen dago
<p>ARGA</p>	<p>IBAIZABAL</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Gaia jorratzen hasi aurretik, euskara hizkuntza gutxituaren egoera kontuan eduki. • MUGA(K): Errealitatea ez ukatu, baina, muga(k) gainditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal kulturari zentzua eman, biziarazi. • Euskal kultura ez erakutsi, biziarazi. Esperientzia anitzak sortu. • Abiapuntuaren garrantzia → singularrean definituz, bidea horrela definitzen du.

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte kontsumitzailearen eraginak (industria kulturala, sare sozialak ea.) bereziki frantsesez eta espainolez delako. • Gizartea, azkenean, globalizazioa dela-eta oso antzekoa dugu. • Hezkuntza sistemen desberdintasunak lurraldeka – lurraldetan bertan. • Euskal Herriko Hezkuntza Sistema bat → Norabide anitz. Bakarra, baina, ez da denentzat berdina izan behar: Helburu komunak. • Hiritar helburu amankomuna. • Norabide berdinean lan egiteko → Bakoitza prest zerbait galtzeko. • Bakoitza bere berezitasunekin, baina, curriculum minimoa adostu. • Desberdintasunak baino, batzen gaituzten elementuak lehen lerroan jarri. Gure errealitate hirukoitzetik singularrean deklinatuko den instituzio batetara. • Zer erakuts dezakegu elkarrekin? Euskaraz aparte, identifikazio aurre lana egin → Historia, euskal kultur anitzak ea. • Euskal Herria, Euskal Kultura eta Euskara ardatz duen sistema irekia, malgua eta dinamikoa (Curriculum diseinuetan gakoa eta irakasleen profesionalizazioa). • Amankomunak diren arazoentzat (Euskara-Kultura, Kohesioa, Klima Aldaketa, Hezkidetzak ea.) hausnarketa eta erantzun konpartituak, elkarlanean, emango dituen sistema bat. • Etorkizuneko aldaketei erantzuteko prestatuak → Profesionalki eta emozioen kudeaketan. • Sistemaren eraldaketa → Kohesioa eta konfluentzia. • Euskal Herriko Hezkuntza Sistema sistema osoa izan behar du (Oitk Unibertsitatera arte). • Gobernantza eredua: Gobernantza partekatua. • Gertuko Gobernantza eredua. • Gobernantza: Hezkuntza komunitate ahaldunderako bideak/egiturak izango dituena. Formal-Ez formal, Langile (Irakasle eta beste), Ikasle, Guraso, Herritar, Eragile, Erakunde... • Hezkuntza-Sistema: -Euskara ardatz nagusi. -Programa amankomunak: Historia & Gizarte-Kultural gaitan. Zubiak eta Formakuntza Hezkuntza-Sistema desberdinen artean. • Komunitatea → Herritarra. • Hezkuntza komunitatearen aitortza gobernantzan. • Hezkuntzaren funtzio eraldatzailea. | <ul style="list-style-type: none"> • Zer ekartzen ahal duen tradizioak berritasunak sortzeko gaurko eta biharko munduan bizitzeko? Adibidez, etxeen eraikuntzaren metodo eta materia tradizionalak gaurko etxeak eraikitzeko; ahozko kultura gaitasunak sortzeko (komunikazioa, memorizazioa...) • Euskararekin zerbait gehiago ematen dugu? Zerbait ezberdindua? • Euskara munduari buruzko ikuspegi bat da. • Euskara. Komunikatzeko eta mundua ezagutzeko, ulertzeko hizkuntza (ahozkoa). • Sistema berri bat sortu = ideologia landu eta partekatu. • Euskalduntasuna modu ireki eta inklusiboan “definitu”. • Euskaldun → euskaradun izateaz gain, Euskal Herriko maparen jabe (lurraldetasunaren kontziente), eta euskal kulturaren jabe (beste mundu honen kodeen jabe). • Euskal kulturak euskararen praktika elikatzen du, euskarara erakartzen. Euskal kultura inklusio tresna bat bezala ikusi ahal daitekeen gogozkatu. • Euskara eta euskal kulturaz zer ulertzen dugu? Belaunaldi guztiek gauza bera ulertzen dute? Zer izango da euskaldun izatea? • Transmisioa bermatu. • Belaunaldien zubiak eraiki. Euskal nortasuna zer da? Belaunaldien artean aipatu. • Kultura: katebegia izatea. Familiako + eskolako transmisioa → lekukoa pasa. • Euskara eta euskaldun izatea arlo emozionaletik landu. Ikerketak? • Plazerra, gozamenarekin lotu. Erakargarritasuna. “Guay” izatea. • Harremanak – elkarlanak indartuz / sustatuz euskalduntasuna “birsortuko” da. • Euskal kulturaren prestigiatzea → erreferenteak. • Artea, zientziak, historia / geografia... arloen ikuspegitik gogoetatzea (testuinguruak bultzatzeko). • Euskaraz, saretzea, elementu sorta erreferentziala eta amankomuna sustatu. Identifikazioa. • Hezkuntza, kulturgintza eta hezkuntzagintza modu integratu eta estrategikoan koordinatu. • Ofizialtasuna • Gaur egun hezkuntzan eragina duten kanpo esku-hartzeetatik askatu (Euskal Herriko jendartea bilduko duen entitate administratibo propioa izan). |
|---|--|

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Nolakoa? Euskalduna. Pedagogikoki Berritzailea. Haurra eta ikaslea erdigunean duena. • Ikaslea erdigunean → Parte hartzea. • Euskara eta Euskal Curriculum. • Euskararen praktikatzeko zentzu galtzea → Erakargarritasuna landu. • Euskal Herriko Hezkuntza Sistema Autonomoa (Deszentralismoa). • Ikastetxe ezberdinen arteko (Sare ezberdinak, baina, ez bakarrik) harremanak ahalbidetu eta sustatuko duen sistema. • Nola. Norabidea: -Lankidetzak. -Deszentralizazioa (Udalak, Hurbilekoa). - Hezkuntza formala-ez formala. • ZUBIAK: Irakasleen artean, ikasleen artean ea. sortu. EHUK egoitza Iparraldean edukitzea. Ikasketen ekibalentziak. Eskola arteko trukaketak egin. Mugikortasun beka. • Euskal Herri mailan, IKASKETA IBILBIDEA egin ahal izatea. • Idekia → Ez burbuila batean. • Euskal Baxoa/Batxilerra amankomuna. • Iparraldeko errealitateak hiru saretan (Seaska, Publikoa, Pribatu Katolikoa) → Horien artean zubiak, harremanak sortu eta baita Iparralde-Hegoalde artean ere → Bai eskolen artean, bai irakasleen artean, bai haurren artean, bai gurasoen artean. • Formakuntza profesionalean eta teknikoan, Iparralde-Hegoalde artean zubiak sortu. • Irakasleen egonaldiak beste herrialdeetan. Halaber, irakasleen kasuan: etengabeko formakuntza, baita beste herrialdeetan ere. • Baloreak. • Naturaltasuna (Konplexurik gabe): Hizkuntza guttitua “Ez gira herri ttipi bat”. • Herri Hezkuntza: Horizontaltasuna. • Edozein adinetan ikasteko aukera. • Euskal Herri mailan ikasketak egiteko erreztasunak → Irakasleen saretzea, lan egiteko aukerak saretzea ea. • Euskal Herri eremuan bizi diren guztiei IRAKASKUNTZA SEGURTATU. • Euskarazko formakuntza profesionala eta teknikoa garatu. | <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza politika sendoak eta ausartak. • Hizkuntz-politika sendo eta ausartak (dirua, baliabideak eta jakintza). • Hizkuntza politika edo administrazioaren esku hartzea. • Egiturazko neurriak, anbizioa, erakundetu eta bidea egin. • Zein ikuspegitik egingo da? Hizkuntza nazionala vs. hizkuntzen ekologia. • Diskriminazio positiboa euskararentzat eta euskaraz egiten den kulturarentzat. • Euskararen eta euskarazko kurrikuluma. Orokortua. • Hezkuntza ez formalean zein aisialdian euskararen presentzia. • Hezkuntza komunitate zabala kontuan hartu, formala eta ez formala. Transmisioan, inklusioan eta kulturartekotasunean, prestigioa. • Eskola ikasleen bizitzaren % 20 inguru da. Ikasleak eta gazte euskaldunak izateko, kontuan hartu: eskola, familia eta gizartea. Norbera + kolektiboa eta lankidetzak. • (Gizartea ulertzeko irudi bat) Euskararen burbuila dago, “ahobiziak”, praktika → inguruan belarriprestak → inguruan euskal kulturari sensibleak direnak. Lehen hiruak dira eragin-gune. Eta horren kanpo besteak daude. • Lan mundua euskaldundu. • Gizartearen euskararen erabilpenerako faktoreak: sare sozialak, lan-mundua, festak, euskal kultura... • Presentzia gehitu: sare sozialetan, kalean, erreferentziak, liderrak... • Ekosistema: eskola, familia, elkarteak, herria, komunikabideak... • Kontestuak izan behar dute: eskolatik kanpo hausnartu tokian tokiko duen garrantzia euskararen erabilpenak. • Hezkuntza ikasgelatik karrikara atera. • Eskolan piztutakoa → gizartean bizi. • Tokikotasuna, fisiko-analogikoa klabea da euskara – euskal kultura indartzeko eta garatzeko. Kulturgileak babestu, sustatu... Harrobia zaindu eta sustatu. • Euskara jakiteaz gain, euskara bere bizitzan integratu. Euskaraz ikasteko aukerak eskaini. Baxoa – azterketak, Lanbide Heziketa, unibertsitatea... • Hezkuntza sisteman (goi mailako ikasketetan), guneak eskaini. • Ikasle denak murgiltze sisteman. Kultura ezagutarazi, biziarazi. Haur eta gazteak sortzaile egin. • Inklusioan, euskaraz artatu. Hizkuntza proposamen berdina guztieri eman. |
|---|--|

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Euskal Herria aldatzea ahalbidetzen dituzten lanbideak garatu (Ekologia, Bizitegia, Zerbitzuak, Energia ea.). • Euskal Herrian bizitzea ahalbidetzen dituzten lanbideak garatu. • Baliabide digitalak guztien esku izateko zailtasunak. • Haurrak sortu. • Klima. • Numerikoa. • Honetan ere ardatzak, helburu komunak: Euskalduna, autonomia, sortzailea, ongi izatean, kolaboratiboa, gizartearekin konprometitu. • Herritar euskaldunak, euskal kulturaren jabe. • Ikasle konprometituak, gizartearekin eta euskal kulturarekin. • Euskal Kulturaz eta Euskal Herriko Historiaz jabetuak diren herritarrak, transmisio honi euskaraz egiten delarik. • Herritar militanteak, inplikatuak, “politizatuak” → Ez kontsumitzaile hutsak = “ardiak”. • Euskaldunak. Burujabetuak. Sendoak besteeri ongi “idekitzeko”. • Lokalki errotoak (Lan, bizi...) eta perspektiba globala bereganatuko duten euskal herritar kritikoak, konprometituak. • Euskararen altxorren jabe eta euskaraz adierazteko gai. • Herritar ekologikoak, feministak, kultur aniztasunari irekiak. • Euskaldunak. Kritikoak. Askeak. Konprometituak komunitatearekin. • Euskalduna. Kritikoak. Sortzailea. • Aske eta eratzaille. • Ikasle eraldatzaileak. • Aniztasun inklusiboa. • Arlo teknologikoan eta digitalean prestatuak → Irekiak eta euskaraz. • Herritar kritikoak. Autokritikoak. Autoestimua. • EH hezkuntza inklusiboa, irekia, lekuko berezitasunei egokitzen dena. • Gizarte euskalduna eta eleanitzak, euskal kulturaren jabetua, mundu globalizatuan bere tokia duena. • Herritarren konpromisu aktiboa → Aktibismoaren harrotasuna. | <ul style="list-style-type: none"> • Kultura eta hizkuntza anitzak egongo dira / egon arren, euskara ardatz → euskara inklusiboa. • Inklusioa, ekitatea → eskubideak dira. Kulturartekotasuna, euskaratik egin. • Inklusioa = norbera bere heineko ahala eta ardura. • Inklusioa → baloreen lanketa eta datorrenaren babesa. Kulturartekotasuna, zirkuluak irudikatuz gero lore forman, zentroa gurea izanez, zentrotik. • Euskal Hezkuntza propioan: herritarrak hezkuntza sisteman mugitzeko aukerak (ikasketak, lana). • Ikuspegi geografikotik, harresiak sortu, babestu (bazterretan euskara eta euskal kulturaren guneak / uneak indartu). • (Kulturartekotasunean) ezagutu → erakusteko. Kontzientzia hartu. • Kulturartekotasuna. Euskal kultura (kurrikuluma) pentsatu partekatzeko tresna bat bezala, beste lurraldeetako kulturekin. • Euskal Herria eta euskara (identitatea) → beste kulturak ulertu eta gure egin. • Euskal kulturak zer hartu dion beste kulturei? Metizazioa beti izan da. Adibidez: trikitixa. Eta zer ekarri duen beste kulturari? Adibidez: Balentziaga, pilota, kantua. • 1. inklusioa – ekitatea lortzea ez dagokio soilik hezkuntzari (plangintza osoa). 2. Eginbeharrak sinkronizatuak izan behar dira eta elkar elikatuko dituztenak. 3. Zer-nolako herritarrak nahi ditugu? 4. Hezkuntzaren erronka berriak: datozenak, gaudenok... Gizartearen bilakaerak markatzen dituenak. • Kulturartekotasuna. Besteengandik ikasi, ateak eta ahoak denei zabalduz, gai guztietaz mintzatuz. Trukaketa bultzatu. • Inklusioa + kulturartekotasuna: kanpokoei berena ekartzera bultzatu. Zalantza, hizkuntza eta kultura menderatzailea dutenean? • Hartu eta eman hizkuntza eta kultura gutxiuak garelako kontuan hartuta. • Baliabideak / tresnak asmatu eta gauzatu Euskal Herrira bizitzera heldu den jendea integratzeko, Euskal Herrian berezko hizkuntza eta kultura badela ohar daitezen. • Euskara orokortua, komunitatea zabalean → inklusiboa. Beste hizkuntza eta kulturei irekia. • Eleaniztasuna: malgutasun intelektuala, soziala, jendearen arteko harremanetan, bake mundu bat eraikitzeko. |
|---|---|

- Gizartearen arreta eta interesa piztu, Hezkuntza Sistemari buruz ideia eta ekarpen berriak partekatzeko, hainbat tresna eta dispositiboen bidez gogoeta etengabe elikatzeko eta ez bakarrik “profesionalen” esku uzteko.
- Hizkuntza eta Gizarte ametsak bizitu.
- Ekintzaileak behar ditugu.
- Hezkuntzarekiko begirada aldatu → Errekonozimendu handiagoa.
- Formakuntzaren bidez, erronka sozial nagusiei erantzun.
- Lehen erronka sozialak: Transizio energetikoa eta ekologikoa.
- Bigarren erronka soziala: Gizartearen zahartzea.
- Hautatuko den lanbideari zentzua eman: Zertarako hautatu lanbide bat? Zein izanen da nire tokia aldatzen den mundu hortan?
- Ikastetxeak kanpoari irekiak egon behar dira → Jendarteari, ekonomiari, arlo sozio-ekonomikoari.

- Kuriosa erein besteen baitan. Gizartea ez da euskalduna, orduan hemen frantsesak eta Hegoaldean espainolak “kutsatu” / hunkitu behar ditugu euskararen errealitatea (minorizatua) dela uler dezaten. Haurrak ere. Jende irekiagoa, kuriosagoa dena nahi dugu.
- Herri / hizkuntza zapaldu baten parte izanik, ditugun pribilegioen deseraikitze ezinbestekoa.
- Altxorraren zaindaria, munduari irekia: jasotzeko eta emateko. Kulturantzatasuna.
- Egintzat ematearen arriskua eta “desapegoa” → balioa (euskaldun) aldarrikatu. OPTIMISMOA, posible dela sinesten duten jendea behar dugu (adibidez, bai inmertsioa posible da publikoan).

URDAZURI

- Balioen inguruko gogoeta
 - Hezkuntza sistema herritar askeak sortzeko helburuaren norabidean jarri beharra da.
 - Bide horretan, zein dira dauzkagun balio komunak? Bakoitzak ditu bere balio propioak eta segur aski balioetariko batzuk ez ditugu elkarren artean partekatzen, eztabaita asko sor daiteke... Hala eta guztiz ere, badago ikuspegi bat erraz denok partekatzen duguna : materialismoaren/kontsumismoaren kontrako ikuspegia. Ikuspegi hori amankomunean daukagu denok, dudarik gabe.
 - Hortaz, nola egin materialismoaren/kontsumismoaren kontrako jarrera garatzeko? Tokiko kontsumoa bultzatuz (adb. ikastetxeetako jantokietan tokiko elikaduraren promozioa eginez), tokiko energia erabiliz, hots, subirautzaren ideia garatuz...
- Teknologia berrien eta inteligentzia artifizialaren aurrean zein da gure begirada hezkuntza ikuspegitik?

- Euskara eta euskal kulturaren apaltzea
 - Lehenik eta behin, euskara eta euskal kultura bereizi behar ditugu. Maiz euskararen inguruan hitz egiten dugu baina euskal kulturak garrantzia bera dauka, ez bada handiagoa.
 - Errate baterako, 90. hamarkadan, ikastoletako haurrek euskal kulturaren inguruko ezagutza handiagoak zituzten, euskal literaturaren inguruako erreferentzia ugariak... aldi berean ikas-materialgintzan baliabide askoz gutiago zelarik! Zergatik? Garaian bestelako atxikimendu bat zelako buraso eta erakasleen partetik... Atxikimendu horren berreskuratzea da gaur egun eskuartean daukagun erronka nagusia hain zuzen.
 - Hezkuntza modu zabalean aipatzeko xedea badugu ere, murgiltze ereduaren fokusa jartzen dugu (Seaskan kasu honetan), uste dugulako euskalduntze prozesuan eredu izan dela. Eredua izan bazen ere, gaur egun hutsuneak nabaritzen dira, bereziki bi arlotan:
 - euskararen mailaren apaltze bat senditzen dugu gaur egun, orokorrean. Errate baterako, ikastolatik ateratzen den haur

- Aldi berean aukera eta arrisku bezala ikusten dira teknologia berriak. Ezer baino lehen, lan pantaila eta aisi pantailaren konzeptuak berizi beharrak dira.
- Gai horren inguruan hausnartzeko, datuak dauzkagu : adb. gaur egun, bi urteko haur batek pantailak erabiltzen ditu, gomendatua delarik 3 urte aurretik ez erabiltzea; era berean, 8 urteko haur askok eduki desegokiak ikusi izan dituzte sareetan (adb. pornografia). Errealitatea hau da, estatistika eta datuek frogatzen digute.
- Errealitate hori ikusirik, argi dago dena ezin dela hezkuntzaren gain utzi; familiek ere daukate beren ardurak, baita Estatuak ere. Izan ere, pantailen eta sare sozialen erabileraren arautzeko beharra ikusten dugu. Gidabaimena eduki ahal izateko adin muga bat dago; berdin egin daiteke pantailen erabileraren kasuan.
- Sare sozialek bestelako arazo bat ere sortzen dute: super informazioarena hain zuzen. Azken aldietan indar bereziarekin ikusten dugu fenomeno hori (konplotismoaren garapena errate baterako, Trump-en hautagaitzan sare sozialek ukan duten eragina...). Super-informazio horren parean, oinarrizko ezagutzen apaltze bat ikusten dugu. Unibertsitatean batez ere, Historia eta Gizarte Zientzietan, ikusten da ikasleek funtsezko ezagutzak eskas dituztela; baina aldi berean, iritzi jakin bat daukate edozein gizarte-gaien inguruan...
 - Funtsezko ezagutzak berreskuratu nahi badira, ikuspegi zientifikoa eta pentsamendu arrazoinatua oinarritzeko beharra ikusten dugu, elementu razionaletan oinarritzeko beharra, ikuspegi oro argumentazio estrukturatu baten inguruan eraikitze beharra.
- Ekinbide horretan, parte hartzeko kulturaren garapena tresna bezala ikusten dugu (eta ez berezko helburu bezala). Nola garatu prate kultura? Ttiki-ttikidanik, haurrak iritzia ematera ohituz, ikastetxeen ibilmoldean inplikaraziz, etab.

- batentzat errexago da “Le monde” egunkariko idatzi bat irakurtzea euskarazko prentsa artikulu bat baino.
- Bestalde, zenbatentzat euskara ama hizkuntza da gaur egun? Ikastoletara sartze diren haur anitzentzat, euskara ez da lehen hizkuntza, bigarrena baizik.
 - Familia/erakasleen konzientzia politikoaren apaltzea, euskara eta bereziki euskal kulturarekiko atxikimenduen gibel egitea.
 - Nola egin hutsune horri aurre egiteko?
 - Zer egin liteke euskara eta euskal kulturaren apaltze egoera horri aurre egiteko? Leheneik eta behin, Seaska eta eskola publiko/pribatuen arteko lankidetzak garatzea, ekimen amankomunak antolatuz; baina ez Olentzero edo ihauteriak bezalako besta uneetara mugatuz baizik eta modu iraunkorrean, urte osoko proiektu pedagogikoen bidez. Uste dugu horrelako eskola-arteko lankidetzak garatuz, euskara eta euskal kulturarekiko atxikimendua azkartzen ahal dela, lehen aipatu bezala, atxikimendu hori delako gakoa.
 - Kulturartekotasunari doakionez : euskara lurraldean integratzeko tresna bezala ikusten da; hots, egiazko behar sozial bat bezala ikus daiteke (lan bat aurkitzeko, ingurugiroan ongi integratzeko...).
 - Demografia mailan, datuak hor ditugu : urtero, 3 500 bat biztanle berri sartzen dira Ipar Euskal Herriko eremuan (BAB aldean bereziki) eta azpimarratzekoa da haietako gehienak helduak direla, eta frantses jatorrikoak (maiz “etxean bezala” senditzen direnak, integratzeko beharrik senditzen ez dutenak). Hots, kasu honetan, euskalduntzearen erronka ez doakio hezkuntza alorrari, helduen alfabetizazioari baizik.

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA II - AKTA

Bikoteka landutako eta talde handian partekatutako ideiak.

GOBERNANTZA KOMUNITARIOA

MUGAZ-GAINDIKO LANKIDETZA

ALTUBE

- Herrigintza indartu behar da, eredu komunitarioa lehenetsi behar da.
 - Herrigintzan dugun esperientzia baliatu behar dugu
 - Iparraldearen eta Hegoaldearen artean, bi norabideetako irakaspena dugu egiteko. Ispilu izan behar gara.
 - Euskararen ofizialtasunak, hein batean, euskararen alorreko eragileak ahultzea ekarri du.
- Gobernantza komunitarioak aginte partekatu lehenesten du, hortaz, ezinbestekoa da 4 urteko legegintzaldiekiko menpekotasuna haustea.
- Herrigintza tokian tokiko errealitateari erreparatuz egin behar da, beraz, ezinbesteko aktore dira: herriko etxeak; eskolak; aisialdi-, kirol- eta kultur-eragileak; eskola orduz kanpoko jarduerak...
 - Herriko etxearen eta eskola komunitatearen arteko harremana zuzena eta etengabea izan behar du.
 - Lantalde bat garela sinetsi behar dugu. Bakoitzak bere esparrutik, helburu bera lortzeko lan egiten dugula. Elkarlana.
- Saretzea beharrezkoa da, behar komunei erantzuteko helburu partekatuak lantzea ezinbestekoa da. Indarrak batu behar dira.
 - Tokian tokiko errealitatera egokitutako languneak sortu behar dira. Autonomoak?
- Hezkuntza-komunitatearen, herri-komunitatearen, ardura da heziketa: pentsatzen, idazten, sortzen... irakatsi behar du.
 - Gurasoen inplikazioa bilatu behar da.

- Eredu paternalista hautsi behar da.
- Laguntza albo batera utzi eta elkarlanaz hitz egin behar da.
- Euskal Herriko gobernantza-eredua irudikatzen hasi behar dugu.
 - Gure eredia sortu behar dugu. Goazen! Ausardiaz!
 - Eusko Ikaskuntzak, hemen, badu zer esana eta zer egina. Lidergoa.
 - Nola egin baina? Nazio ikuspegia kontuan hartuta? Erakundeetatik at?
- Euskal erakundeen eta gizarte antolatuaeren lankidetzak egituratu behar da: diagnosiak, erronkak, ezagutzak eta baliabideak partekatzeko.
- Hainbat esparrutan lankidetzak erraz sustatu daitezke, hala nola:
 - Unibertsitate eremuan, *Erasmus* egitasmoa Euskal Herrira ekarri beharko genuke. Euskal Herriko Unibertsitate publikoa lurralde osoan ez dugun bitartean.
 - Kontuz! Atzerritar gisa kontsideratzeko arriskua baitago.
 - Lanbide Heziketan.
 - Ikasleei pizgarri bat eskaini behar zaie

<ul style="list-style-type: none"> • Gobernantza komunitarioa eskoletako gobernantza eredu behar du izan, ikasleak txikitatik ikasi beharko lukete: <ul style="list-style-type: none"> ○ Hausnarketa guneak sortu behar dira. ○ Iniziatiba landu behar da. ○ Erabakitze-prozesuak irudikatu eta adostu behar dira. ○ Komunitatearen onurarako prozesuetan parte hartu behar dute, ikasleak deliberatzen ikasi behar dute. ○ Talde-lanean jardun behar dute. ○ Ardurak partekatu eta txandakatu behar dituzte. ○ Egindakoaren jarraipena eta ebaluazioa nola egin irakatsi behar da. ○ Konpromisoa, bai norbanakoarekiko, bai taldearekiko sustatuko litzateke ○ Komunitateko kide, partaide sentimendu garatuko litzateke. ○ Ardura kolektiboa landuko litzateke. ○ Enpatia garatuko litzateke. 	
<p>ARGA</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Iparraldean ZENTRALISMOA bizi dute eta Euskal Erakunde Publiko baten beharra azpimarratu dute: Erakunde hau horizontala izateko, apaltasuna beharrezkoa dela nabarmendu da eta eragile guztiek parte hartu behar dutela, ez bakarrik agintariak: Ikasleak, gurasoak, irakasleak, lan munduko kideak, agintariak ea. • Iparraldearen kasuan: <ul style="list-style-type: none"> ○ Frantzia mailan, Eskubide Kulturalen Metodologia onartu da eta toki askotan martxan jartzen ari direla aipatu da. Deszentralizazio eredu baten aldeko apustua omen da eta erakundeengana heltzeko aukera izan daitekeela aipatu dute. ○ Hegoaldearen kasuan: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Eremu txikian, eskola mailan, Hezkuntza Komunitatea dago, baina, honetan azken baimena zuzendaritzak dauka. Gainera, irakasleen kasuan izan ezik, gainontzeko guztien partehartzea borondatezkoa da eta horrek ez du egituraz beste eragileen partehartzea bermatzen, borondatezkoa izateak suposatzen 	<ul style="list-style-type: none"> • Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko zubilana funtsezkoa dela aipatu da eta, horretarako, udal mailan, lankidetzaz bultzatu behar dela. Horretarako, Herri Hezitzaileen proiektua aukera bat izan daitekeela aipatu da. • Hezkuntzaren edukien aldetik, euskarari eta euskal kulturari dagokionez, Programa eta Curriculumaren arteko ezberdintasunak zeintzuk diren aipatu da eta barrutik aldatzeko nola egin ere hitz egin da. Iparraldeko eta Hegoaldeko Hezkuntza Sistemen arteko ezberdintasun administratiboak aipatu dira eta Iparraldean, hezkuntza pribatuaren kasuan, Estatuarekin kontratua sinatzen dela diote. Badirudi Frantzia mailan, hegoaldearekin alderatuta, irakasleen artean badagoela askatasun pedagogikorako aukera, baina, euskarak ez du izan lekurik eta atzerriko hizkuntza bezala sartu izan da. Iparraldean euskal curriculumara orain lantzen hasi direla diote. Euskal Kultur Erakundearen, esaterako, eragile ezberdinekin gaiak zeintzuk diren eta hori hezkuntzan eta gizartean nola garatu eta zabaldu lantzen hasita daude. • Aurreko puntuaren ildora, hegoaldean euskal curriculumari buruz egin den lana - Euskal Herri osoa kontuan daukana- Iparraldeko eragileek erabil dezaketela

<p>dituen arriskuekin: modu jarraian partehartzeko aukera izatea ea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Guraso Elkarteak egitura pribatuak dira, nahiz eta eskola publikoa izan. ▪ Udal mailan eta herri batzuetan Hezkuntza batzordeak daude, baina, askotan urtean 2-3 aldiz batzen da bakarrik, benetako dinamizarik gabe. <ul style="list-style-type: none"> • Adibide bezala eta dagoeneko Euskal Herri mailan herri ezberdinetan martxan dagoelako, Herri Hezitzaileen proiektua aipatu da, udala, herri eragileak eta hezkuntza eragile formalak eta ez formalak batzen dituen. Zer den ezagutzeko www.herrihezitzailea.eus helbide elektronikoa aipatu dute. Badirudi Baigorri herriak ere bertan parte hartzen duela eta taldeko partehartzaile askok ez zuten ezagutzen. • Martxan den eta hainbat udal batzen dituen Haurren Hirien Sarea ere aipatu da. 	<p>aipatu da. Ikastolak eta Elkarrek egindako lanari probetxua atera behar zaiola esan dute, Iparraldea eta Hegoaldea alderatu eta komuna dena zehaztu daitekeela esan da.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaur egun dagoeneko existitzen diren sareak elikatu eta zabaldu behar direla esan da. • Haurren eta gazteen arteko lankidetzak bultzatzea funtsezkotzat jo da. • Euskal Herri mailan ere EAEren partetik ematen den zentralismoa gainditu eta Euskal Herriarekiko irudia eta sinesmen asko deseraiki beharra aipatu da. Ildo honetan, Iparraldea hegoaldekoentzat bukoliko sentitzea, esaterako. • Akitania + Nafarroa + EAEren arteko lankidetzak gaur egun oso zaila gertatzen ari dela esan dute, nahiz eta ahalegina egin izan den. • Lankidetzak lokalki errotu beharra aipatu da, hiriei gaur egun dagokien pisua gutxituz eta bizitza osasuntsuagoak ardatz edukita. • Elkar ezagutza bultzatzearen garrantzia azpimarratu da eta horrek mugikortasuna erraztuko duela. Elkar ezagutza hori bultzatzeko foroak sortzea aipatu da • Materiala elkarbanatzearen garrantzia aipatu da, ez bakarrik Hezkuntzan, baita Kulturaren, Zientzian, Musikan ea.
---	--

ATURRI

<ul style="list-style-type: none"> • Ipar Euskal Herrian sare publikoa, pribatua eta Seaskaren arteko komunikaziorik ez dago. Hobetzeko beharra dago. Ekimen partekatutako beharrezkoak dira, ikasleak eta irakasleak (bakoitza bere aldetik) bilduta: mendi txangoak, kultur ekimenak... Badaude horretarako adibideak: matematikako irakasleen kasua. • Erabakiguneetan beharrezkoa da bermatzea 4 eragile-multzoren parte hartzea: erakundeak, herritarrek, eragileak eta adituak. • Gobernantza komunitarioaren paradigma izan daiteke Seaska. Horrelako eredu interesgarriari zabalpena ematea beharrezkoa da. Hala ere, ez da beti erraza: marko legala, herritarren partaidetza kultura... • Ekimen partekatutako abian jartzea beharrezkoa da, harremanak sendotzea, behetik goranzko logikan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Mugaz-gaindiko lankidetzak ari garenean, hori ondo definitzea beharrezkoa da: zer da guretzat mugaz gaindi? Pirinioez gaindi? 3 eremu administratiboez gaindi? Eremu administratibo bakoitzaren baitan? • Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herriaren arteko ekibalentzia sistema bat landu beharko litzateke, ikasteko eta lanerako: hiztegia bateratu, batetik besterako jauziak estandarizatu, baxoa-selektibitatea... • Izan dira mugaz gaindiko ekimen interesgarriak, ekimen komunak, herri mugimendutik sortutako batik batik. Horiek aintzat hartu behar dira irakaspen gisara: intsumituak, herri irratia, gaztetxeak, Bertso Txapelketa, AEK eta Korrika, ikastoletako festak, euskal selekzioa...
--	---

<ul style="list-style-type: none"> • Egungo gobernantza eredua deseraiki eta berriro eraikitzea beharrezkoa da. Gobernantza komuna bazterretatik sortu behar da, aktibatu eta elkarrekin lanean jarriz irakaslea, gurasoak, langileak eta ikasleak. • Kultura komunitarioa irakatsi baino, praktikara eraman behar da. • Publiko-pribatu dikotomia ere gainditu beharko litzateke, egun ez baitu esanahirik bere horretan. Horren orde, ardatzak honakoa beharko luke izan: doakoa da ala ordaintzen da? Ordaintzen bada, argi izanik beste hau: muga da eta segregatzen du. • Hainbat uste oso barneratuta ditugu. Diagnostikoa behar da, datuak, horrelakoei aurre egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Mugaz gaindiko lankidetzarako, trukaketak beharrezkoak dira (ipar-hego, ikastola-sistema publikoa). Horretarako, ordea, matrikulak eta bekak oztopo dira: jendea gehiago joan ohi da IEHTik Bordelera hegoaldera baino, merkeagoa delako. Hortaz, Euskal Herriko unibertsitate eredua birpentsatzea ere beharrezkoa da. Lanbide heziketan, esaterako, egon dira eredu interesgarriak. • Nerabezaroan eragitea garrantzitsua da, pertsonak une horretan formatzen baitira. Kultura demokratikoa txikitatik irakatsi behar da. • Hezkuntza mailan, plataformak asmatu behar dira, Euskal Herriko (ipar/hego) sare ezberdinen arteko lotura lanak egingo dituztenak. Ikastola eredua, akats guztiekin, egun dugun hezkuntza sistema nazional bakarra da. • Hezkuntza-hizkuntza maila neurtzeko arauak, baliabideak... batu eta elkarrekin landu beharko lirateke. • Klaseetan lantzen diren edukiak bateratu beharko lirateke: Euskal Herriko historia, euskal literatura...
---	---

IBAIZABAL

<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzaren ofizialtasuna herrialde guztian, zubiak eta trukaketak errazteko. • Hezkuntza komunitatea bat egin. Guraso, irakasle eta elkarrekin artean osatutako hezkuntza gobernantza. • Ikastolen Elkartearen eremuan sakondu. • Erakundeetan lurralde bakoitzak du erabakia → partekatu bai. Sakondu. • Eskolak herrira ireki. • Aldez aurretik parte hartzaileen konpromisoa segurtatu behar da. • Orain arte, herri mugimenduak bultzaturik dira antzinamenduak egiten. • Herri mugimenduan eta jada gobernantzan ohituak daudenekin. • Gaur egun dauzkagun sareak indartu eta proposamenak eraiki. • Elkar entzuteko denbora hartu behar da, entzumen aktiboa landuz, enpatiaz. • Zentralismotik autonomiara heltzeko, lehenik ekinez zer dugun irabazteko irudikatu behar. Denok irabazle izateko ideiarekin, berdin gatazkatik iraganez. • Ekile izan behar. • Lehendik dauden dispositiboak baliatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zubiak eraiki sareen artean: mugaz gaindiko hezkuntza sistemak ongi ezagutu sintonia handitzeko helburuak adierazteko momentuan. • “Erasmus” egitura bezala Euskal Herri mailako bulego bat ikasleen mugikortasuna laguntzeko: bekak; dispositibo bereziak kolegio / lizeo / fakultatea ikastaldi / inmertsioa lantzeko. Ekibalentziek sinple behar dute. Irakasleen formakuntza eskaintzan elkar-trukaketa tailer / foroak garatu. • Irakasleen formakuntza. • Irakasleon trukaketa / errotatibitatea. • Esperientzien trukaketak. • Materialgintzan sakondu. Ikuspegi hegoaldekoa (curriculum).
--	--

URDAZURI

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Europar Batasunaren oinarri den subsidiaritate printzipioa daukagu gobernantza komunitarioa garatzeko tresna gisa. Horrek subirantza gehiagorantz eramen behar gaitu (ez bakarrik hezkuntza, fiskalitate alorrean ere, dena lotua baita). Udalek eskumen edo ardura gehiago hartzeko aukera dute nahi izanez gero. • Gizarte zibilarekiko lankidetzeta : Ipar Euskal Herrian lorpen gehiago dago eremu horretan (alderantziz EAE-n gobernantza bertikalagoa, marketegin politiko azkarra...), batez ere Garapen Kontseiluaren baita garatu den esperientzia oparoarekin. Halere, Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioaren sendotzearekin batera, arrisku berri bat dator : eragileekiko lankidetzaren ahultzearena hain zuzen. Baitzepadakoa da lurraldeko elkarte eta enpresa desberdinekiko lankidetzeta indartzen segitzea. • Era berean, hezkuntza ere eko-sistema bat bezala ikusi behar dugu, eragile desberdinen artean garatuz. Errate baterako, nekez bereiz daiteke eskola lanbide heziketarengandik euskalduntzearen ikuspegitik... Gaur egin lanbide heziketa oso eremu erdalduna da. • Euskal kurrikulumari doakionez ; hutsune argia ikusten dugu euskal memoriaren transmisioaren inguruan. Alde batetik, egia da arlo horretan ikas-materiala eskas dugula (historia eta oroimenaren inguruan bereziki) ; baina bestalde, badakigu hezkuntza eragileek badutela margen handia helburu pedagogikoen gauzatze prozesuan. Hutsunea aukera bilakatzen da beraz. Seaskan badira eskaintzak (euskal literatura eta kulturaren arloan) baina erakasleek oinarritzat hartzen ez badituzte ez da ezer pasatzen, ez dago ondoriorik,... Gomendio/norabideak badira baina ez dira lotesleak. Nola egin euskara eta euskal kulturaren hedapena derrigorrezkoa bilakarazteko hezkuntza alorrean? 1990. Hamarkadan, asko egiten zen zentzu horretan eta baliabide guttiagorekin gainera. | <ul style="list-style-type: none"> • Mugaz bi aldeetako ekimenak garatzea baitzepadakotzat jotzen dugu, bereziki kultur alorrean (ospakizunak, elkar-trukeak, ...). • Era berean, kirol alorrean bada zer egin, aukera anitzak sortzen ditu : hezkuntza proiektuak, lehiaketak, sentsibilizazioa... Bizitzako arlo garrantzitsua da kirola eta askoz gehiago ustiatu daiteke euskal komunitatea sendotzeko bidean. • Elkar-ezagutza sustatu behar dugu, arlo guztietan (osasun arloan besteak beste, mugaz bi aldeetako osasun zentroen arteko praktikak elkar-trukatuz). • Ipar Euskal Herriko lege markoa NOTRE legea da eta instituzio garapenerako aukera desberdinak eskaintzen ditu (eskuduntza transferentziak besteak beste). • Ipar Euskal Herriaz haratago, hezkuntza eragileek paper garrantzitsua eduki beharko luke Euskal Herri osoko eremuan jarduten duten eragileekin (Eusko Ikaskuntza, Kontseilua, AEK, Ikastolen Elkarte, Udalbiltza), proiektuen bidez estrukturatuz. • Bestalde, unibertsitateen arteko lankidetzeta hitzarmenen garapena estrategikotzat jotzen da; baina aldi berean, traba asko ikusten da arlo horretan: <ul style="list-style-type: none"> ○ Ipar Euskal Herriko ikasle askoren "etxea" Bordale da, eta ez Baiona. Eta Bordaleko Unibertsitateko eragileek ez dute baitzepadara senditzen Hego Euskal Herriko unibertsitateekiko lankidetzaren estutzeko beharrik; beraientzat ez du premia bati erantzuten. Nazioarteko lankidetzeta beste maila batean ikusten dute... ○ Hizkuntzaren traba dago bestalde. Euskarak hurbildu egiten gaita baina lurraldeko beste hizkuntzek ere lotura hori egin lezakete. Euskara dugu lotura baina Ipar Euskal Herrian ofiziala ez denez unibertsitateko ikasle gehienek ez dakite eta bestalde, Hego Euskal Herriko ikasle gehienek frantsesaren ezagutzarik ez dute. ○ Mugaz-gaindiko formakuntza-Masterrak gara daitezke, tituluen baliokidetzeta arazoei aurre egiteko eta gaur egun nagusitzen diren oztopo administratiboak gainditzeko. • Mugaz gaindiko eginbide horretan Eusko Ikaskuntza klabe bezala ikusten dugu. |
|--|---|


EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMA, ETORKIZUNA ELKARREKIN LANTZEN

Gobernantza komunitarioa eta mugaz-gaindiko lankidetzaren garrantzia



Euskal Herriko Hezkuntza Sistema: etorkizuna lantzen

 Mentimeter



1 Lehentasun-maila

22



Euskal hezkuntza-sistema, etorkizuna elkarrekin lantzen. Iparraldeko ahotsa eta azpimarra jardunalditik partaideek azpimarratzen dutena.

